

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 429/2024 Erabakia, uztailaren 16koa. Onestea energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2024rako deialdia

Arabako Lurralde Historikoko klima ekintzarako estrategia (KLIMA ARABA 2050) Arabako Batzar Nagusietako Ingurumen batzordeak onetsi zuen 2022ko uztailan, eta helburu du abian jartzea gure lurraldean klima aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak eta ekintzak, bai eta karbono gutxiko energia eredu baterantz aurrera egiten laguntzea ere.

Onetsitako dokumentuak, lurraldeko toki erakundeentzako jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzea jasotzen du 1. helburuan (Arabako eredu ekonomiko eta energetikoa deskarbonizatzea), "Energia berriztagarriak eta erregai berriak sortzeko eta kontsumitzeko trantsizioa" izeneko lan lerro estrategikoaren barruan.

Lan esparru horretan, proposamen honen xedea da jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko udalerrri eta kontzejuentzako laguntza lerroaren 2024ko deialdia onestea.

Deialdia arautzen duten oinarriak Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 18ko 11/2024 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Laguntza lerroak honako ekintza mota hauek laguntzen ditu diruz:

1. Eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea; kontsumoak kontrolatzea; energia auditoretzak, energia eraginkortasunaren ziurtagiriak, energia jarduketan planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketara egokitzeko eta hura arintzeko beste plan batzuk egitea. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez.

2. Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko.

3. Eguzki bidezko argiteria publikoko ekipamendua.

4. Lanparak aldatzea, argiteria publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna areagotzeko.

5. Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak, bai haiekin lotutako biltegitarte instalazioak; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoen eskariari erantzuteko.

6. Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoko azpiegiturak ere; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoetan erabiltzeko.

7. Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bai eta bizikletetarakoak ere. Karga puntuak erabilera publikorako izan behar dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailu-etarako.

8. Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bai eta bizikleta elektrikoak ere, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuan jasotako dirulaguntzen lerrorako zuzkidura orokorra 250.000,00 euro da, 40208. G/456400/76290401 "Efizientzia energetikorako dirulaguntzak" aurrekontu partidaren kontura.

Horrenbestez, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren 2024rako deialdia. Deialdi horren zuzkidura orokorra 250.000,00 euro izango da 2024rako, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko 40208. G/456400/76290401 "Efizientzia energetikorako dirulaguntzak" aurrekontu partidaren kontura.

Bigarrena. Zenbateko osagarriak ezarri ahalko dira, 250.000 euroko mugaraino, horretarako beste deialdi bat egin behar izan gabe.

Deialdia argitaratzen den bezala argitaratu beharko da gehieneko zenbatekoak baino gehiago ematea xedatzen duen ebazpena, baina argitalpen horrek ez du esan nahi epea luzatzen denik eskaera berriak aurkezteko edo berriz ere zenbatzen hasten denik ebazteko epea.

Hirugarrena. Aurrekontuaren erdia Arabako Lurralde Historikoko administrazio batzarrek egindako eskaerarako gordeko da (125.000,00 euro) eta beste erdia udalen eskaerarako (125.000,00 euro). Aurkeztutako eta baliozkotutako eskaeren arabera aurrekontu erabilgarriaren guztizkoa erabiltzen ez bada, adibidez, administrazio batzarren kasuan, soberakin hori udalen aurrekontua handitzeko erabili ahal izango da, eta alderantziz.

Laugarrena. Laguntza lerroaren barruan, honako jarduketa mota hauek lagundu ahal izango dira diruz, diruz lagundu daitezkeen gehieneko ehuneko eta dirulaguntzaren gehieneko zenbateko hauen arabera, kontuan hartuta jarduketa mota bakoitzaren zenbateko ekonomikotik erdia administrazio batzarrentzako erabiliko dela eta beste erdia udalantzako, eta jarduketa mota bakoitzean soberakinik balego, aurreko puntuan adierazitako moduan jokatu litzatekeela:

JARDUKETA MOTA	AURREKONTU OSOAREN BANAKETA, JARDUKETA MOTAREN ARABERA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENKO ZENBATEKOA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENKO EHUNEKOA
1. mota: Eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea; kontsumoak kontrolatzea; energia auditoretzak, energia eraginkortasunaren ziurtagiriak, energia jarduketan planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldatetara egokitzeko eta hura arintzeko beste plan batzuk egitea. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez	50.000,00 euro	6.000 euro	ehuneko 85
2. mota: Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko	5.000 euro	3.000 euro	ehuneko 85
3. mota: Eguzki bidezko argiteria publikoko ekipamendua	20.000 euro	20.000 euro	ehuneko 60
4. mota: Lanparak aldatzea, argiteria publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna areagotzeko	15.000 euro	5.000 euro	ehuneko 60
5. mota: Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak, bai haiekin lotutako biltegitarte instalazioak; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoen eskariari erantzuteko	110.000 euro	40.000 euro	ehuneko 60

JARDUKETA MOTA	AURREKONTU OSOAREN BANAKETA, JARDUKETA MOTAREN ARABERA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENEN ZENBATEKOA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENEN EHUNEKOA
6. mota: Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoko azpiegiturak ere; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoetan erabiltzeko	20.000 euro	6.000 euro	ehuneko 60
7. mota: Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bai eta bizikletetarakoak ere. Karga puntuak erabilera publikorako izan behar dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuetarako	20.000 euro	5.000 euro	ehuneko 60
8. mota: Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bai eta bizikleta elektrikoak ere, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako	10.000 euro	9.000 euro (1.500 euro bizikleta elektrikoetarako)	ehuneko 30

Bosgarrena. Diruz lagunduko den jarduera ezingo da hasi 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen.

Ordainketak egiteko eskatzen den dokumentazioa 2024ko abenduaren 30erako aurkeztu behar da, beranduenez.

Seigarrena. Dirulaguntza eskaerak egoitza elektronikoa dagoen berariazko izapidetaren bidez aurkeztu behar dira (<https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>). Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zein diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo "Ezagutu egoitza–Nola sartu" izeneko atalera. Arabako Foru Aldundiaren web orri instituzionalean eskuragarri dagoen informazioan zehazten dira eskaera behar bezala aurkezteko bete beharreko jarraibideak (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayudas-sostenibilidad-energetica>).

Zazpigarrena. Frogagiriak egoitza elektronikoa bidez aurkeztu beharko dira, eta, zehaztutako agiriez gainera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren web orri instituzionalean dagoen eredu erabilia (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/sostenibilidad-energetica>), adierazteko espedienteari eransten zaizkion fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, erakunde eskatzaileak dauzkala eta eskatzen zaizkionean Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela.

Zortzigarrena. Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua izango da, eta ebazteko eskumena Foru Gobernu Kontseiluak izango du.

Bederatzigarrena. Eskaerak ebazteko epe gehienez ere bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Interesdunei ebazpena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie, ebazpena eman ondorengo hamar egun baliiodunetan. Esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, dirulaguntza ezetsi egin dela esan nahiko du. Ebazpen horrek eta oinarriak betearazteko ematen direnek administrazio bidea amaituko dute.

Hamargarrena. Ahalmena ematea Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuari espediente honek eskatzen dituen eta Foru Gobernu Kontseiluari dagozkion administrazio egintzak eman ditzan, lege ezarritako salbuespenetan izan ezik, eta Aurrekontua gauzatzeko foru arauan gastua baimendu eta antolatzeke ezartzen diren eskumenari eta mugari kalterik egin gabe.

Hamaikagarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hamabigarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka egin ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua

SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria

MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA